

Hogeita hamargarren urteurreneko hitzaldia

Harro egoteko modukoa da niretzat gaur zuen aurrean hitz egitea. Ezin dut irudikatu hemen egotea baino ohore handiagorik, demokraziaren hiru hamarkaden urteurrena ospatzea baino ohore handiagorik. Gaur, proba asko eta erronka handiak gainditu dituen proiektuaren arrakasta ari gara ospatzen. Eusko Legebiltzarraren, euskal herritar guztion etxearen urteurrena dugu gaur, gure kezkek bideratzeko, gure desberdintasunak eztabaidatzeko eta gure premiei aurre egiteko baliatzen dugun elkarrizketarako gunearen urteurrena.

Orain dela hogeita hamar urte etorkizun hobearen aldeko apustua egin genuen euskal herritarrok, '78ko Konstituzioaren babesean autogobernua eskuratzea erabaki genuen, eta horretarako gure Autonomia Estatutua onartu genuen. Gernikako Estatutua heldutasunaren aldeko benetako apustua izan zen, beste batzuek porrot egin zuten erronka bati aurre egin zion klase politikoaren obra. Ausarta izan zen gure haritz sinbolikoaren itzalpean lortutako adostasuna, eta ikuspegi zabala izan zuen. Eusko Legebiltzarra ahalegin horren guztiaren emaitza da gaur.

Nola gainditu gure desberdintasunak, nola ezarri elkarrizketarako eta ideiak trukatzeko foroa? Galdera hori sortu zen Gernikako belaunaldiaren baitan. Belaunaldi hark gerra zibil odoltsuaren oroitzapena zela eta metatutako gorrotoa, polarizazioaren estigmak eta diktadura iluneko hamarkadek sustatutako gorroto hori atzean nola utzi galdetu zion bere buruari. Gaur galdera horiei erantzun diezaiekegu, eta esan: hona hemen proiektu honetan jarritako itxaropenak izandako emaitzaren erakusgarria. Hemen gaude, horren lekuko izateko. Hauxe gertatzen da gure desberdintasunik erradikalenen gaineratik funtsezko balio batzuek elkartzen gaituztela ulertutakoan.

Eusko Legebiltzarra, batzuetan trebe eta besteetan baldar izan den arren eta oraindik ere erronka handiak baditu ere, bere egileek erakunde honetan jarritako




ilusioen erantzuna da, zalantzarik gabe. Hori dela eta, amets egiteko ausardia izan zuten haiek guztiak ohoratu behar ditugu, gizarte honetan sinetsi zuten eta horren aldeko apustua egin zuten guztiak, gu gaur hemen egotea ahalbidetu zuten guztiak.

Haritz preziatu horrek asko ezagutu izan du hiru hamarkada hauetan. Guztiak ikusi du. Hauteskundeetako itsasgorak eta itsasbeherak ikusi ditu; batzuetan lasai eta besteetan gogor. Hemen ditugun joera ideologiko desberdinek elkarren artean talka nola egiten duten ikusi du, batzuetan nola bat egiten duten, eta besteetan desagertu ere nola egin izan diren. Izan ere, euskal politika oso korapilatsua da; esan beharrik ere ez da. Sentimendu sutuak sortzen ditu. Inoiz ez gaitu epel uzten.

Gernikako arbolak hogeita hamar urte hauetako historia kontatuko balu, gehiengo eta itun desberdinei buruz hitz egingo liguke agian, hauteskundeetako arrakastei, hainbat krisiri eta garaipen eta porrotei buruz. Aurrera jarraitzen dutenei buruz eta jada gure artean ez direnei buruz. Haritz zahar horrek hitz egingo balu, elkarturik jarraitzeko esango liguke, indarkeriari aurre eginez, bere sustraiek ezin dutela jada odol gehiago jasan esango liguke. Benetan uste dut euskal gizarteak aldi honetan lortu duen guztiaz harro dagoela esango ligukeela. Izan ere, euskaldunon ordezkaria den aldetik, Legebiltzarrak izandako aldaketak hogeita hamar urte hauetan bilakaera eta eraldaketa sakona bizi izan duen euskal gizarte baten islada politikoa dira.

1980ko martxoaren 9an hautatu genituen lehen euskal legegintzaldiko kide izango zirenak. Hautzaroko oroitzapen lausoa baino ez da hori niretzat. Beste batzuentzat gure iragan nahasiko beste gertaera garbi bat izango da. Gazteenentzat, aldiz, argazkietako eta dokumentaletako irudia baizik ez da izango. Haatik, egun horrek izugarrizko garrantzia izan zuen demokraziaz gozatzeko pribilegioa izan dugun eta dugun euskal belaunaldi guztiontzat. Izan ere, egun horretan euskal demokraziak adierazpide berria izan zuen, eta lehen aldiz arabarrok, gipuzkoarrok eta bizkaitarrok gure ordezkariak aukeratu genituen eta erakunde komunak bultzatu genituen. Erakunde horiek eman ziguten aukera elkarbizitza politikoari buruzko





erabaki propioak hartzeko. Nagusi ziren tentsio handien artean, helduak ginela erakutsi genuen, eta gisa horretan ekin genion gure historia autonomikoaren ibilbideari.

Zer ikasi asko dugu hiru hamarkada hauetan metatutako esperientziatik. Asmatu dugunetik eta egin ditugun akatsetatik. Izan ere, irauteko sortutako edozein erakunderen kasuan bezala, Legebiltzarraren oinarriak sendotu egiten dira etengabeko esperientzia demokratikoa medio.

Gauza asko gertatu dira hogeita hamar urte hauetan. Une garrantzitsu asko izan da ibilbide horretan. Zortzi legegintzaldi izan ditugu eta bederatzigarrenaren erdian gaude. Laurehun eta hogeita zortzi (428) legebiltzarkide izan gara areto honetan. Horietako seik, lehendakariaren ahulki honetatik, etxe honen zerbitzura egoteko ohorea izan dugu. Gainera, hirurehun eta hogeita hamar (330) lege inguru onetsi dira ganbera honetan, askotarikoak benetan. Legez besteko bi mila seiehun (2600) proposamen baino gehiago aurkeztu dira. Jarduerak frenetikoa izaten jarraitzen du, eta gero eta gehiago, gainera. Horri begiratuta, gure legebiltzar-lana ahalbidetzen duten administrazioako langile guztien zeregin garrantzitsua aitortu nahi dut.

Gure legegintza-ahalmenean aparteko erantzukizuna dago; zuzen erabiltzean, onartutako itunaren muina ageri da. Izan ere, lege berriak onesten ditugun bakoitzean, gaurkoan gogora dakartzagun kontratu sozial horren klausulak berritzen ditugu.

Gaur etxe honetan 75 ordezkari gara, oso joera desberdinetakoak. Baina, esan bezala, badakigu oso garrantzitsua den zerbait partekatzen dugula, gure artean desberdintasunak izan arren. Hori harro egoteko modukoa da. Gaur zalantza egin gabe esan dezakegu hemen gauden guztiok gizakiaren bizia ohoratzen dugula, balio absolutu gisa. Hogeita hamar urtetan asko egin dugu hori erakusteko.





Legebiltzarrean nabarmen egin dugu aurrera indarkeriazko ekintzak aho batez gaitzesteko, zuzenbide-estatua indartzeko eta bakea bilatzeko zereginen.

Ezinbestekoa da terrorismoaren biktimetara hurbiltzeko bidean aurrera egitea. Mendeetako historiak aspertu arte irakatsi digu giza biziak duen balioa. Ez du axola borroak zein diren edo nondik datozen. Gaur badakigu beti zentzugabekeriaren biktimen aldean egongo garela. Berriz esango dut: borroak edozein direla ere. Izan ere, totalitarismoaren ondorioak jasan dituzten guzti-guztien memoria ondratu behar dugu, totalitarismo hori noiznahikoa edo nonahikoa dela ere¹. Alabaina, ez dugu ahaztu behar gaur egun dugun lehentasun etikoa une honetako gaixotasunen sendabidea aurkitzea dela. Hemen eta orain sufritzen dutenak dira gure lehentasun politiko. Oraindik ere gure gizartea kutsatzen ari den birus horretatik Euskadi askatzeko ahaleginera bideratu behar dugu gure zeregin osoa. Zeregin horrek merezi du. Hori dela eta, ETAren biktimak dira eta izan behar dute, gaur, gure erabateko lehentasun. Oraindik ere milaka dira sufritzen ari direnak, egunero propaganda terroristaren lotsagabekeria etengabea jasaten dutenak, milaka dira oraindik ere beldurrez bizi direnak. ETA baita oraindik ere gure lurrian dugun arrasto libertizida bakarra.

Eusko Legebiltzarra ere kolpatu duen ulertezintasun hiltzailearen itzala behingoz eta betiko desagerraraztea da egiteko dugun zereginik garrantzitsuena. Enrique Casas gogoratuko dugu, gogoratuko ditugu Santiago Brouard, Fernando Buesa, Gregorio Ordóñez eta jada gure artean ez diren beste hainbat. Horien familiei ere zor diegu. Hauxe da gorrotoak eta zentzugabekeriak bizia kendu dien horiek ondratzeko modurik onena.

Terrorismoaren aurkako borroka dela eta bizia egunero arriskuan jartzen duten gizon eta emakume horien ekarpen ausarta ere aitortu behar dugu oraingo





honetan. Horietako batzuek gugatik galdu dute bizia. Horien memoriak tarte berezia izan behar du etxe honetan, horiek ahalbidetu dutelako demokrazia.

Egia da lortu dugun guztia lortuta ere, bideak latza izaten jarraitzen duela. Ezbaia da nagusi bizi dugun garai honetan. Ezbaia, ekonomiaren, politikaren nahiz gizartearen alorrean. Balore-aldaketaren, politikoak zalantzan jartzearen eta elkarbizitzarako erronken garaiak bizi ditugu. Haatik, gure historiak garai horiei aurre egiteko gai garela erakutsi digu. Zernahiri aurre egiteko gauza garela, elkartzen garenean, aginteari erantzukizunez heltzen diogunean, egiaz garrantzitsua denaz arduratzen garenean. Uste dut hogeita hamar urte hauek erronka horiek guztiak gure gain hartzeko behar dugun irmotasuna eman diotela Eusko Legebiltzarrari.

Bestalde, bada niretzat garrantzi berezia duen gai bat. Oraindik gure herritarrik gazteenekin dugun zorraz ari naiz. Hori da 30 urte hauek ulertzeko premisetako bat, baita etorkizun hobea ziurtatzeko giltzarria ere. Etorkizuneko belaunaldia begira dugu, erne.

Arin ibili behar dugu, denbora estutzen ari zaigu eta. Gizartearekin dugun zorra da hori, bere etorkizun ekonomikoa gero eta konplexuago ikusten ari den eta, beraz, akordioetara iristeko gai den eta lan-ezegonkortasunaren inguruan ditugun arazo larrien irtenbideak bilatzeko prozesuan buru izan nahi duen klase politikoa behar duen gazteriarekin dugun zorra. Ereduak eman behar dizkiogu gizarte globalean bizitzeko prestatu den belaunaldiari, errotikako aldaketei aurre egin behar dien belaunaldiari, guk gaur egindakoaren mendekoa izango den etorkizuna izango duen belaunaldiari.

Ez dugu bizikidetzaren gorpila berriz asmatu beharko. Proiektu honen egileek emandako ereduan bilatu behar dugu inspirazio-iturria; besterik ez. Horretarako, geure ametsak izaten ausartu behar dugu, gure sen sortzailearen alderdirik onenaz baliatu behar dugu. Nahi izanez gero, lortu ahal izango dugu. Lortu ahal izango





dugu, gizarteak hemen eta orain egoteko eman digun pribilegioaz jabetzen bagara. Lortu ahal izango dugu, atzera begiratu eta lortu dugun guztiaz ohartzen bagara. Lortuko dugu, orain dela hogeita hamar urte jendarte honekin hartutako konpromisoa berresten badugu.

Gure erakunde politikoetara erakarri behar ditugu gazteak, ezer ez dela erraza izan gogorarazi behar diegu behin eta berriz, eta erne egon behar dutela, aurrera jarraitzeko. Beraiek ospatuko dituzte legebiltzar honen hurrengo hamarkadetako urteurrenak. Nahiago nuke ordurako gugana joko balute eredu bila. Saia gaitezen horretan.

Honela esan zuen behin norbaitek: ezkorrak haizeaz kexatzen diren bitartean edo inuzenteak haizea noiz aldatuko zain geratzen diren bitartean, errealistek haize-oihalak prestatu eta gelditu gabe nabigatzen dute. Hori hala bada, hemen, Euskadin, oso errealista da gizarteak, eta ez da kikildu eraso gaituzten ekaitz suntsizailleetako bakar baten aurrean. Horretaz harro egon gaitezke. Horiek dira une eta leku bakoitzean beren ahaleginaren haize-oihalak prestatu eta aurrera jarraitzeko itxaropenarekin haizatu dituztenak, zailak izan diren baldintzetan nabigatzeko, beste asko hondoratzen eramango zituzketen baldintzetan. Horrela arakastaz burutu ahal izan dugu hogeita hamar urteko ibilaldia.

Eta gogoan izan; hiru hamarkada hauek hasiera besterik ez dira izan. Gure erakundeek adi egon behar dute etengabeko bilakaeran dabilen gizarte baten zerbitzura egoteko. Gernikako haritz zaharraren orubean kimu berria ere bada, gero eta presenteago dagoen etorkizun baterako pizgarri berria. Eusko Legebiltzarrak, euskal gizartearen ordezkari demokratikoa den aldetik, adi egoteko eta aurrea hartzeko jarrera horri esker erantzuna eman ahal izango die erronka berriei.

Urteurren hau dela eta, zorionak.

Eskerrik asko.





Discurso del 30 Aniversario

Siento un profundo orgullo al dirigirme a ustedes en este día. No puedo concebir mayor honor que el de estar aquí, celebrando el aniversario de tres décadas de democracia. Conmemoramos hoy el éxito de un proyecto que ha superado grandes pruebas, enormes retos. Hoy vivimos el aniversario del Parlamento Vasco, la casa de todos los vascos, el foro de diálogo en el que se canalizan nuestras inquietudes, se debaten nuestras diferencias, se afrontan nuestras necesidades.

Hace treinta años los vascos apostamos por un futuro mejor; decidimos acceder al autogobierno al amparo de la Constitución del 78; y para ello aprobamos nuestro Estatuto de Autonomía. El Estatuto de Gernika constituyó una auténtica apuesta por la madurez, la obra de una clase política que hizo frente a un reto en el que otros habían fracasado. El consenso alcanzado a la sombra de nuestro simbólico roble fue valiente, tuvo una gran amplitud de miras. Y el Parlamento Vasco constituye hoy el fruto de todo ese esfuerzo.

La generación de Gernika se planteó cómo superar nuestras diferencias, cómo establecer un foro de diálogo e intercambio de ideas. Esa generación de hombres y mujeres se preguntó cómo dejar atrás el odio acumulado por el recuerdo de una cruenta guerra civil, ese odio fomentado por el estigma de la polarización y por décadas de oscura dictadura. Hoy podemos responder esas interrogantes y decir: he aquí la prueba de que la esperanza depositada en ese proyecto ha rendido sus frutos. Aquí estamos para testimoniarlo. Esto es lo que sucede cuando comprendemos que, por encima de nuestras diferencias más radicales, nos unen una serie de valores esenciales.

El Parlamento Vasco, con sus aciertos y errores, y pese a los profundos desafíos que subsisten, es sin duda la respuesta a las ilusiones depositadas por sus artífices. Por ello creo que hoy debemos honrar la memoria de todos aquellos que





se atrevieron a soñar, de todos aquellos que creyeron y apostaron por esta sociedad, por todos los que hicieron posible que estemos aquí hoy.

Ese noble roble ha conocido mucho en estas tres décadas. Lo ha visto todo. Ha visto las mareas electorales subir y bajar; unas veces de forma serena, y otras abruptamente. Ha visto cómo las distintas corrientes ideológicas aquí presentes chocan entre sí, cómo en ocasiones se unen, incluso cómo otras veces se desvanecen. Y es que la política vasca, sobra decirlo, es muy compleja. Genera hondas pasiones. Nunca nos deja indiferentes.

Si el árbol de Gernika contase la historia de estos treinta años, nos hablaría quizá de distintas mayorías y pactos, de éxitos electorales, de diversas crisis, de triunfos y fracasos. De los que siguen y de los que ya no están. Si ese viejo roble hablase, nos diría que sigamos unidos haciendo frente a la violencia, nos diría que sus raíces ya no soportan más sangre. Nos diría, estoy convencida, que siente orgullo de todo lo que la sociedad vasca ha logrado en este tiempo. Porque como representación de los vascos, los cambios vividos por el Parlamento son la traducción política de una sociedad vasca que ha vivido también una profunda evolución y transformación en estos 30 años.

Fue un 9 de marzo de 1980 cuando acudíamos a elegir a quienes encarnarían la primera legislatura vasca. Para mí ése es apenas un vago recuerdo de infancia. Para otros será un vívido episodio más de nuestro turbulento pasado. Y para los más jóvenes, en cambio, será apenas una imagen de fotos y documentales. Sin embargo, ese día tiene una enorme trascendencia para todas las generaciones de vascos que hemos tenido y tenemos el privilegio de gozar de la democracia. Porque ese día la democracia vasca tuvo nueva expresión; y por primera vez alaveses, guipuzcoanos y vizcaínos elegimos nuestros representantes e impulsamos instituciones comunes, instituciones que nos permitieron tomar decisiones propias de convivencia política. En medio de las enormes tensiones reinantes dimos una muestra de madurez, y emprendimos así el trayecto de nuestra historia autonómica.





Tenemos mucho que aprender de la experiencia acumulada en estas tres décadas. De nuestros aciertos, y de nuestros errores. Porque, como toda institución hecha para perdurar, los cimientos de este Parlamento se fortalecen de una constante experiencia democrática.

Muchas cosas suceden en treinta años. Y hay muchos hitos importantes en ese trayecto. Han pasado ocho legislaturas, y hemos cumplido el primer año de la novena. Cuatrocientos veintiocho (428) parlamentarios han ocupado esta sala. Seis de ellos hemos tenido el honor de servir a esta casa desde el sillón presidencial. En esta cámara se han aprobado además cerca de trescientas treinta (330) leyes de la más diversa índole. Se han presentado más de dos mil seiscientas (2600) proposiciones no de ley. La actividad sigue siendo frenética, y cada vez lo es más. En este cometido debo reconocer la importante labor de todo el personal administrativo que hace posible nuestro trabajo parlamentario.

Nuestra potestad legislativa significa una altísima responsabilidad, en su correcto ejercicio está la esencia del pacto asumido. Porque cada vez que aprobamos nuevas leyes renovamos las cláusulas de ese contrato social que hoy recordamos.

Hoy en esta casa somos 75 representantes de las más variadas tendencias. Pero sabemos, como señalé antes, que a pesar de nuestras diferencias compartimos algo muy importante. Eso es motivo de orgullo. Hoy podemos decir sin titubear que todos los aquí presentes honramos la vida del ser humano como un valor absoluto. Y en estos treinta años hemos hecho mucho por demostrarlo. En este Parlamento se ha avanzado considerablemente en la condena unánime de las acciones violentas, en el fortalecimiento del Estado de Derecho, en la búsqueda de la paz.

Es imperativo que sigamos profundizando en el acercamiento a las víctimas del terrorismo. Siglos de historia nos han enseñado hasta la saciedad el valor que tiene la vida humana. No importa quiénes sean ni de dónde vengan los verdugos.





Hoy sabemos que nuestra orilla siempre es la de las víctimas de la sinrazón. Y repito: no importa quiénes sean los verdugos. Porque debemos honrar la memoria de absolutamente todos aquellos que han sufrido las consecuencias del totalitarismo, en cualquier momento y lugar de nuestra historia. Pero no por ello podemos olvidar que hoy nuestra prioridad ética es encontrar curación a las enfermedades del presente. Nuestra prioridad política son aquellos que sufren aquí y ahora. La tarea que merece consumir todos nuestros esfuerzos es liberar a Euskadi de ese virus que aún infecta nuestra sociedad. Por ello nuestra absoluta prioridad, hoy, son y deben ser las víctimas de ETA. Porque son miles de personas quienes sufren aún, todos los días, el continuo desplante de la propaganda terrorista; porque son miles de personas quienes viven aún con miedo. Porque ETA es el único rastro liberticida aún presente en nuestra tierra.

Nuestra tarea pendiente más importante es erradicar de una vez y por todas la sombra de la incompreensión asesina, que también ha golpeado al Parlamento Vasco. Recordamos a personas como Enrique Casas, recordamos a Santiago Brouard, a Fernando Buesa, a Gregorio Ordoñez, y a muchos otros que ya no están. Se lo debemos a también a sus familias. Ésta es la mejor manera de honrar a quienes han visto su vida arrebatada por el odio y la sinrazón.

Debemos también reconocer en esta ocasión la valiente contribución de los hombres y mujeres que arriesgan diariamente su vida en la lucha por la libertad. Algunos de ellos han perdido su vida por nosotros. Su memoria debe estar especialmente presente en esta casa, porque han hecho la democracia posible.

Es verdad que a pesar de todo lo logrado, el camino sigue siendo arduo. Vivimos tiempos de incertidumbre. De incertidumbre económica, política y social. De cambios de valores, cuestionamiento de los políticos y retos para la convivencia. Sin embargo, nuestra historia nos ha demostrado que podemos afrontarlos. Que podemos con todo cuando nos unimos, cuando ejercemos con responsabilidad nuestro mandato, cuando nos ocupamos de lo verdaderamente importante. Creo





que estos treinta años han dado al Parlamento Vasco la solidez necesaria para asumir todos estos retos.

Hay un asunto al que doy especial relevancia. Es la deuda todavía pendiente con nuestros ciudadanos más jóvenes. Ahí se encuentra una de las premisas para comprender estos 30 años, y también la clave para asegurarnos un mejor futuro. La generación del mañana está mirando atenta.

Debemos ser muy ágiles, el tiempo apremia. Ésa es una deuda con la sociedad, con una juventud que está viendo cada vez más complejo su futuro económico, y que necesita por tanto de una clase política que sepa llegar a acuerdos, que quiera ponerse a liderar la búsqueda de soluciones a los graves problemas de inestabilidad laboral. Debemos dar referentes a una generación que se ha preparado para vivir en una sociedad global, a una generación que afronta cambios radicales, a una generación cuyo porvenir depende de lo que hagamos nosotros hoy.

No hace falta reinventar la rueda de la convivencia. Lo único que hace falta es buscar inspiración en el ejemplo que nos dieron los artífices de este proyecto. Ello requiere que nos atrevamos a concebir nuestros propios sueños, que apliquemos lo mejor de nuestro instinto creativo. Podemos lograrlo, si queremos. Podemos lograrlo, si comprendemos el privilegio que nos ha otorgado la historia de estar aquí y ahora. Podemos lograrlo, si miramos atrás y nos percatamos de todo lo que hemos conseguido. Lo lograremos, si renovamos el compromiso asumido hace treinta años con esta sociedad.

Debemos atraer a los jóvenes a nuestras instituciones políticas, recordarles constantemente que nada ha sido fácil, que deben estar atentos para seguir adelante. Serán ellos quienes celebren las siguientes décadas de vida de este Parlamento. Procuremos que, para entonces, nos miren a nosotros en busca de ejemplo.





Alguien alguna vez dijo que cuando los pesimistas se quejan del viento, o mientras los ingenuos esperan a que éste cambie, los realistas simplemente ajustan las velas y navegan sin parar. Si eso es así, aquí en el País Vasco, si hay algo de que preciarnos, es que tenemos una sociedad profundamente realista, que no se ha amilanado frente a ninguna de las devastadoras tormentas que nos han azotado. Son ellos los que en cada momento y lugar han ajustado las velas de su esfuerzo y las han inflado de esperanza para seguir adelante, navegando en condiciones difíciles, condiciones en las que muchos otros habrían naufragado. De este modo hemos cubierto con éxito la singladura de estos treinta años.

Y recordemos que estas tres décadas son sólo el comienzo. Nuestras instituciones deben estar atentas para servir con eficacia a una sociedad en permanente evolución. El solar del viejo roble de Gernika también lo ocupa hoy un nuevo retoño; savia nueva para un futuro que cada vez es más presente. Esa actitud de alerta, de anticipación, será la que permitirá al Parlamento Vasco, como representación democrática de la sociedad vasca, dar respuesta a nuevos retos.

Felicidades por este aniversario.

Muchas gracias.

